

## XXXI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

### Otoitza

Jainko ahalguztidun errukitsua,  
zure graziari esker,  
ongi zerbitzitzen zaituzte fededunek;  
egizu, arren, Zuk agindutako ondasunetara  
eragozpenik gabe joan gaitezela.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 6, 2-6

*Entzun, Israel:  
Maita ezazu Jauna bihotz-bihotzez.*

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitzegin zion herriari: «Izan beldur Jaunari, zure Jaungoikoari, zuk eta zure seme-alabek eta zure seme-alaben seme-alabek; eta gorde ematen dizkizudan agindu eta arau guztiak, zure bizitzako egun guztietan, luzaro bizi zaitezen.

Entzun, beraz, Israel, eta bete Jaunaren aginduak, zorioneko izan zaitezen eta ugaritu, esnea eta eztia darion lurtean, Jaunak, zuen arbasoen Jaungoikoak, agindu zizun bezala.

Entzun, Israel: Jauna, gure Jaungoikoa, bakarra da. Maita ezazu Jauna, zure Jaungoikoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, zure indar guztiz. Eduki zure bihotzaren muinean, Nik gaur esaten dizkizudan hitz hauek».

ERANTZUN SALMOA: Sal 17, 2-4. 47 eta 51ab

**R/. Maite zaitut, Jauna, nire indar.**

Maite zaitut, Jauna, nire indar,  
Jauna, nire harkaitz, gaztelu eta salbatzaile.  
Zugana biltzen naiz, harkaitz zaitudan Jainko,  
nire babes, salbamen-indar, nire gordeleku.  
Egiten diot dei Jaun goresgarriari,  
eta salba naiteke etsaiengandik. R/.

Gora Jauna! Bedeinkatua nire Harkaitza!  
Jaso bezate gorespenez Jainkoa, nire Salbatzailea!  
Garaipen handiak eman baitizkio bere erregeari,  
eta maitasuna agertu bere Gantzutuari. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 7, 23-28

*Beti irauten duelako,  
betirako apaizgoa dauka.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Asko izan ziren lehengo elkargoko apaizak, bata bestearen ondotik; heriotzak galarazten baitzien beren eginkizunean irautea. Jesusek, ordea, beti irauten duelako, betirako apaizgoa dauka.

Horregatik, Jesusek betiko salba ditzake Jaungoikoarengana Haren bitartez hurbiltzen direnak, beti bizi baita gure alde otoitz egiteko.

Horrelako apaiz nagusia behar genuen guk: santua, errugabea, akatsik gabea, bekatarietatik berezia eta zeruak baino gorago jaso. Hark ez du egunean-egunean opariak eskaini beharrik, beste apaizek egiten duten bezala, lehenik beren bekatuengatik eta gero herriarengatik. Hori, behin betiko egin zuen, bere burua eskainiz.

Benetan, Legeak gizon argalak egiten ditu apaiz; Legearen ondorengo zin-hitzak, ordea, Semea egin du apaiz nagusi, betirako bikaina.

EBANJELIOA: Mk 12, 28b-34

**Aleluia:** Jn 14, 23b

R/. Aleluia.

V/. Ni maite nauenak, beteko du nire hitza  
—dio Jaunak—;  
nire Aitak maiteko du,  
eta harengana etorriko gara. R/.

*Ez zaude urruti Jaungoikoaren erreinutik.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana idazlari bat, eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan lehenengoa?»

Eta Jesusek erantzun: «Hau da lehenengoa: "Entzun, Israel: Jauna, gure Jaungoikoa, bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jaungoikoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, zure adimen osoz eta zeure indar guztiz". Bigarrena, berriz, hau da: "Maita ezazu zure lagunurkoa, zeure burua bezala". Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Idazlariak erantzun zion: «Ederki, Maisu; egia diozu, bakarra dela Jauna, eta ez dela besterik; eta Hura bihotz-bihotzez, adimen osoz eta indar guztiz maitatzea, eta lagunurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta eskaintza guztiak baino hobea dela».

Zuzen erantzun zuela ikustean, honela esan zion Jesusek: «Ez zaude urruti Jaungoikoaren erreinutik».

Eta handik aurrera ez zen ausartzen inor Hari ezer galdetzen.

### **Oparigaien gainekoa**

Eskaintza hau egin bedi, Jauna,  
Zuretzat opari garbi  
eta guretzat zure errukiaren iturri santu.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Gero eta gehiago agertu bedi gudan, Jauna, zure indarra;  
hartu ditugun sakramentuez sendoturik,  
beroiak agintzen dizkiguten ondasunak lortzeko  
zure graziak gai egin gaitzan.  
Jesu Kristo.